



## ETXEBARRIKO TOKIKO AGENDA 21 TOKIKO EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa



<b>Dokumentuaren izenburua:</b>	<b>ETXEBARRIKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Diagnostikoaren sintesia.</b>
<b>Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal Laguntza Teknikoa:</b>	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
<b>Jasotzailea:</b>	<b>ETXEBARRIKO Udala</b>
<b>Parte-hartzen duten Udalak:</b>	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriagako Udala Galdakaoko Udala Urduñako Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Zaratamoko Udala Zeberioiko Udala
<b>Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa</b>	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
<b>Orrialdeak:</b>	30
<b>Hizkuntza:</b>	Euskara
<b>Bertsioa:</b>	Behin betikoa
<b>Entrega data:</b>	2012ko urria



## AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	5
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	7
HELBURUAK .....	8
LAN PROGRAMA .....	9
ARLO TEMATIKOAK.....	10
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK .....	11

## LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, diagnostikoaren ondorio garrantzitsuenak azaltzen dira:

### LURRALDE ALDERDIAK

Etxebarri, **330 Ha.-ko azalerarekin**, UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo azalera txikiena duen bigarren herrialdea da.

Bilborekin duen gertutasunak eta Metro geltoki bat izateak, azken hamarkadan etxebizitzaren garapena erakarri du 10.000 biztanlera iritsiz eta inguruko udalerrietako biztanleriarekin konparatuz biztanleria gazteago bat izatea ahalbideratuz.

Biztanleria, bi hiri asentamendu nagusitan kokatzen da, goialdean **San Antonio** eta behealdean **San Esteban**, non **N-634 errepideak bi auzoen arteko lotura galarazten duen**.

Bizkaiko Foru Aldundiak errepide hori Etxebarritik igarotzean lurperatzeko duen proiektuaren gauzapenak bi asentamenduen arteko lotura behin betikoz erraztu eta udalerrira egituratzeko ekintza erabakigarria izango da.

Nahiz eta bere tamaina txikia eta hiri-dentsifikazio altua izan, Etxebarri hirigune eta hiri inguruko eremu berde asko ditu ekipamendu ugariarekin biztanleriaren probetxurako.

Halaber, ibaiertzaren etengabeko berreskurapenak, pasealeku baten garapen partzialarekin, ibaia hiriaren egituraren barneratzea baimendu dute eta etorkizunera begira desiragarria izango litzateke pasealeku hau osatzea Etxebarri-Basauri oinezko eta bizikletentzako lotura eta ibaiertzaren birsortzearen bitartez. Era honetan, ibaia kirol eta aisialdiko ekintzetarako erabiltzea ahalbideratuko da.

Nahiz eta oso aberatsa ez izan mantenduta eta identifikatua dagoen **ondare arkitektoniko interesgarria** du udalerriak, era egoki batean jendarteratuz balioan jarri beharra dena.



Udalerrira eta eskualde mailan **mugikortasunaren plangintzan eta kudeaketan** aurrerakuntzak ematen ari dira. Zentzu honetan, garraio publikoari buruzko jarrera eta trafikoaren antolamendua eta aparkamendua arrakastatsua izan da, baina oinezkoentzako eta bizikletentzako bide sarean lan egiten jarraitu behar da, hiri inguruan mugikortasun mota hauek bultzatu eta Bizkaiko bizikleta sarearekin lotuz.

Indarrean dauden **arau subsidiarioen** garapen maila altua da eta epe laburrean beharrezkotzat jotzen da hauen berrikuspenean pentsatzen hastea nahiz eta egungo arautegiari dagokionez hirigintzako proiektu batzuk bukatu gabe egon eta etxebizitzaren eskaintza, babes ofizialekoak barne, eguneko eta etorkizuneko beharrezko erantzuna emateko modukoak izan behar duten.

### BALIABIDE NATURALAK, HONDIKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

**Etxebarri Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo** barruan dago eta bertatik uraren kudeaketa integrala egiten da.

Hornikuntza eta saneamendurako azpiegiturak udaleko gaur eguneko eta aurreikusitako behar izanei erantzuna ematen diete, banaketa sarearen errendimendua ona izanik.

**Herriko egitura energetikoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrira askorena bezala erregai fosilen erabilera oinarritzen da, ondorioz berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa ematen delarik. Beraz, herriko beste erronka nagusietariko bat, esparru honetan sakontzea da bai maila publikoan nahiz pribatuan ere, berriztagarriak ez diren iturrien erabilera murrizteko eta berotegi efektua eragiten duten gas isuriak gutxitzeko.

**Hiri hondakin sorreraren bilakaerak biztanleko eta urteko** beheranzko joera izan du eta hondakinen bilketa selektiboak eta berreskurapenak ere gorantz doaz. Hala ere, beharrezkoa da, hondakinen sorrera murrizteko lanean jarraitzea kontsumo, arduratsuan oinarrituz.

**Ingurumenaren kalitatea** altua da, airearen kalitatea eta kalitate akustiko maila onargarri batekin. Herrian **kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak** daudenez, beharrezkoa egiten da zaintza eta jarraipen ekintzak indartzea eta berreskuratze neurriak ezartzea.

## GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKOA

**Hirugarren sektoreko jarduerak nagusitzen dira**, industria eta eraikuntza sektorearen beherazko joerarekin eta lehen sektorea, ia desagertua, jarduera osagarri bezala mantentzen da.

Nahiz eta zaila den herri mailan lehenengo sektorean eta industria sektorean eragina izatea, berrikuntzaren sustapena eta enpresen arteko lankidetzaz jarraitu beharreko jardura lerroak dira.

Merkataritza eta ostalaritza sektoreei dagokionean, Bilbo eta merkataritza gunen handien gertutasunak, elkarkidetzara, profesionaltasun handiago batetara eta gertutasun zerbitzuetara bideratu beharra bultzatzen du.

Halaber, beharrezkoa da langabezia dauden pertsonen lan-bideratzea eta herriko ekintzaileen enpresa proiektuak sustatzen laguntzeko prestakuntza eta enplegurako baliabideek garatutako funtzio eta ekintzen inguruko hausnarketa bat egitea.

Gizarte zerbitzu eta ekipamendu eskaintzak zabalak dira eta gaur egungo eskariari erantzuna emateko gai izan daitezke.

Hala ere, gaur egungo testuinguru ekonomikoan, **geroz eta zaharkituagoa dagoen biztanleria bati** eta Etxebarri agerpen txikia duen krisiak erakarritako **biztanleria etorkinari** erantzuna emango dion laguntza maila eta gizarte zerbitzuak mantentzea erronka bat da.



Azken urteetan egondako biztanleriaren gorakada dela eta Etxebarri duen helburuetariko bat hezkuntza ekipamenduak egokitzea da.

Halako zentzuan, egindako ahaleginen ostean eskola mapa osatzeko batxilergoko prestakuntza zikloak bakarrik geratuko lirakeke.

**Nahiz eta azken urteetan Etxebarriko euskaldun biztanleriak gorantz** egin duen, euskararen erabilera baxua da eta honek euskararen ezagutza eta eguneroko erabilera bultzatzen dituzten politikak garatzen jarraitu beharra dagoela adierazten du.

**Kultura, kirola eta aisialdirako ekipamenduen kalitateak eta kopuruak biztanleriaren eskaria asetzen du**, nahiz eta gizarte eta kultura gunen bat

lortzeko helburua dagoen. Udalak antolatzen dituen ekintzen aurrean gizartearen erantzun on bat jasotzen jarraitu ahal izateko beharrezkoa egiten da kultur ekipamendu eskaintza egoki eta anitza bermatzea baita udala eta giza eragileen arteko **ekintza koordinatuen garapena** indartzea ere.

## SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA

**Parte-hartze kultura eta komunitate kontzientzia finkatzen lagunduko duten egitura parte-hartzaile berrien** aurrerakuntza prozesu hasi berria izan arren emaitzak ematen ari da dagoeneko.

Herriko jasangarritasun prozesuaren oinarria **sentsibilizazioa, prestakuntza eta eguneroko bizitzan praktika egokien ezarpenaren bitartez** biztanleria eta tokiko administrazioaren ohiturak aldatzea da.

Garatzen ari diren zenbait politiken zeharkakotasunak **departamentuen arteko** koordinazioa eta elkarlana are gehiago indartzeko dagoen beharra agerian jartzen du.



## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21:** Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21:** Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21:** Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa:** Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra:** Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Etxebarriko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

## HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitzea.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrriaren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berriari sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.



## LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “*EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa*” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, ***lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak*** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udaletxeko sail desberdinetako teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez eta talde politikoekin lan taldean Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herriko agente ekonomiko eta gizarte agenteen laguntzarekin eginiko mahai teknikoen bitartez, herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (\*) bitartez seinalatu dira.*)

## ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

### LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

1. Lurraldea eta plangintza
2. Natura eta bioaniztasuna
3. Mugikortasuna eta garraioa

### SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

11. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
12. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

### NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA




4. Ura
5. Hondakinak
6. Energia
7. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
8. Arriskuaren kudeaketa eta jarduerak ekonomikoak
9. Erosketa publikoa eta udal administrazioaren ingurumen kudeaketa
10. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

### GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

13. Biztanleria
14. Garapen ekonomiko eta lan merkatua
  - Ekonomia egitura eta jarduerak maila
  - Lehen sektorea
  - Bigarren sektorea
  - Zerbitzuen sektorea
  - Turismo eta ostalaritza sektorea
  - Enplegua eta lan merkatua
15. Ongizatea eta gizarteratzea
  - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
  - Genero berdintasuna
  - Elkarbizitza
  - Osasuna eta osasun zerbitzuak
  - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
16. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
17. Etxebizitza

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:

- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehenetsuneko jarduerak esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

BALORAZIOA	
   <b>Ez baloragarria</b>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak <i>“EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa”</i> agertzen dira.</p>

Diagnostikoko arlo tematiko bakoitzaren edukia, balorazioa eta lehenetsuneko jarduerak **FITXA TEMATIKO** gisa jasota daude.

## EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jardura esparruak
<b>1. Lurraldea eta Planeamendua</b>			
1.1. Lurralde eremua	☹️	<p>Etxebarri <b>Bilboko Metropoliaren Gune Funtzionalean</b> aurkitzen da eta bere kokapena, Bilborakoinoko irisgarritasun puntu bezala, estrategikoa da. Udalerriko lurralde eremua mugatzen duten elementurik nagusienak udalerria zeharkatzen duten eta aurreikusita dauden <b>komunikazio azpiegiturak, Nerbioi Ibaiaren bidea, bailarako biztanleria, industriaren dibertsifikazioa, hiri asentamenduen osaketa eta orografia</b> dira.</p>	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ibilbideak baloreen jarri eta egokitu</b> aisialdiko jarduerak garatu eta bai oinezko eta baita bizikletak ere lurraldeaz disfrutatu dezaten</li> <li>• <b>Hondatutako guneen berreskurapena bultzatu</b>, batik bat Udalaren eskumenetan ez dauden horietan.</li> <li>• <b>Udalerriko ondare arkitektonikoa eta kulturala babestu eta balioan jarri.</b></li> <li>• <b>Pasabide berdeak bidezko pasabide moduan sustatzea</b> elementu naturaletan oinarrituz, intereseko gunek beraien artean eta gunen nagusiarekin lotzen dituelarik.</li> <li>• <b>Ibaiertzak berreskuratzea</b></li> <li>• <b>N-634 errepidea lurperatu hiri-egitura errazteko.</b></li> </ul>
1.2. Udal lurzorua eremua	☹️	<p>Udalerrian bi asentamendu nagusi daude, <b>San Antonioko</b> gune altua eta <b>San Estebaneko</b> gune baxua, biek <b>N-634 errepidea dute hesi lineala</b> bezala eta honek bi auzoen arteko lotura eta era berean udalerriarren antolamendua zailtzen du.</p>	
1.3. Biztanleria guneen egitura	☹️	<p>Hiri-guneen eta inguruetan gune berdeek, parkeek eta lorategiek okupatzen duten azalera <b>legeak eskatzen duena ongi betetzen du</b> eta gainera Bizkaiko eta EAE-ko batez bestekoen gainetik aurkitzen da. Aurrekoarekin batera, gune hauek aisialdirako gune bezala erabiliak izateko eskaintzen duten <b>kalitatea eta ekipamenduen maila altua da</b>. Dena dela, oraindik egungoa osatuko lukeen oinezko eta bizikletei zuzendua dagoen <b>Etxebarri-Basauri ibaiertzeko ibilbide parkea</b> osatzea geratzen da eta ibaiertzaren ingurumen kalitatearen hobekuntza ere egitea falta da. <b>San Antonioko presaren ingurua</b> ere aisialdirako gune bezala hobetu daitekeela uste da, parkea, ekipamenduak eta oinezkoentzako lotura zabalduz.</p>	
1.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak	😊	<p>Udalerrian <b>interesa duen ondare arkitektonikoa</b> dago, non nahiz eta ez izan aberastasun handikoa, identifikatua eta babestua dagoen. <b>Zubiondoko Errota balioan jartzeko</b> aukera dago. Ondare hau <b>biztanleriaren artean zabaldu eta ezagutarazi</b> beharra dagoela ikusten da.</p>	
1.5. Hiri paisaia eta gune degradatuak	☹️	<p><b>Bilbao Metropoliarren Eskualde Egituraren Lurraldearen Zatikako Plana</b>, 2006 urteko azaroan onartua, <b>Malla berdeko ibilbide naturalistiko sarea</b> eta <b>Bizikleta Sareari</b> dagokionean, Etxebarriko planeamenduan eragina duten helburu estrategikoak eta ekintza egiturazailerak ezartzen ditu.</p>	
1.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala	😊	<p><b>Jardura ekonomikoko eta ekipamenduetarako sorkuntza publikoko Lurralde Sektore Planak</b> (2004) udalerria merkataritza ekipamenduak ezartzeko aukerazko udalerririk bezala katalogatzen du eta industria jardura ekonomikoentzako 55Ha.-ko azalera eskuragarria ezartzen du.</p>	
1.7. Lurralde eta sektore antolamendua	☹️	<p>Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurraldearen Arloko Planak <b>Etxebarri babes publikoko etxebizitzaren lurzorua ordenatu, sustatu eta kudeatzeko lehentasuneko</b> interesa duen udalerririk bezala sailkatzen du.</p> <p><b>Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Sektore Plana</b> (2010) nekazaritza eta abeltzaintza balorea dela eta 41 Ha. <b>trantsiziozko eta nekazaritza paisaia</b> bezala katalogatzen ditu.</p>	

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehenetsuzko esku-hartze jardura esparruak
1.8. Hiri antolamendua		<p><b>EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak</b> Etxebarrin <b>Nerbioiko ibaiertzetan natura aldetik lehenetsuzko interesa</b> duten gunek eta <b>ongi kontserbatutako ibaiertzeko landaredia</b> identifikatzen ditu.</p> <p>Herrian ez dute eraginik <b>EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak</b>, ezta <b>Gune hezeen antolamendurako Lurralde Plan Sektorialak</b> ere (2004).</p> <p><b>Indarrean dauden Arau Subsidiarioak esate baterako osatuta daude</b>, dena dela, hauen berrikuspena ez da beharrezkoa ikusten ze aldaketa puntualen bitartez gaur egungo beharrei erantzuna eman ahal da eta nekazaritza eta urbanistikoki garatu zitekeen nekazaritza eta abeltzaintzarako baliorik ez duen lurzoru ez urbanizagarri gutxi geratzen da.</p>	
<b>2. Mugikortasuna eta garraioa</b>			
2.1. Ohiko mugikortasun behararen ezaugarriak		<p><b>Azken urteetan barne mailako joan-etorriak</b> igo egin dira eta <b>oinezkoen mugikortasuna</b> nagusitzen da, <b>nahiz eta garraio publikoarena baino ibilgailu pribatuaren erabilera handiagoa hauteman den. Kanpoko desplazamenduetan</b> metroaren etorrerak <b>garraio publikoaren erabilera handiago</b> bat ekarri du eta <b>ibilgailu pribatuaren jaitsiera</b>.</p>	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorrerako Planak</b> ezarritako neurriak ezarri.</li> <li>• <b>Oinezko eta bizikletentzako ibilbide sare</b> baten diseinuan eta gauzapenean jarraitu.</li> <li>• <b>Landa bideak berreskuratu, mantendu eta seinaleztatu.</b></li> <li>• Biztanleria mugikortasun jasangarrian eta ibilgailu pribatuaren erabilera sentsibilizatu.</li> </ul>
2.2. Mugikortasunaren kudeaketa eta antolaketa		<p><b>Etxebarrik 2007 urtean Mugikortasun Iraunkorrerako Plan bat egin zuen</b> eta bertan oinez eta bizikletaz ibiltzeko neurriak ezartzen ziren, baita garraio publikoa hobetu, garraioa lasaitu, bide segurtasuna hobetu eta aparkalekua hobetzeko neurriak ere. Plana garatzen ari da. Aurrekoarekin batera Etxebarrik <b>Nerbioi Ibaizabalgo 11 udalerrientzako garatu den Mugikortasun Iraunkorrerako Planean</b>, 2011 urtean egina, parte-hartu zuen. Bertan, udalerrri eta eskualde mailan, mugikortasun iraunkorrerako hobekuntza proposamenak egiten dira. Udala Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoarekin elkarlanean <b>mugikortasun astearen barruan sentsibilizazio ekintzak garatzen ditu</b>.</p>	
2.3. Lurraldeko loturak eta antolaketa		<p>Etxebarri ongi komunikatua dago, errepide bidezko irisgarritasuna ona da eta garraio publikoko azpiegitura sarea zabala da, metroa, Euskotren eta Bizkaibusen bitartez herrien arteko garraio zerbitzua ona da. Metroko geltoki berria egiten denean, San Antonion igogailua ezartzen denean eta Euskotren eta Euskotraneko intermodalitateari esker <b>egoera hau hobetuko dutela aurreikusten da</b>.</p>	
2.4. Garraio publikoa		<p><b>Etxebarri Bus herri barrutiko zerbitzuak</b> udalerrria bi lineatan antolatzen du, auzoak, metroko geltokia</p>	<p><b>Udalaz gaindiko eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• N-634 errepidea lurperatu.</li> <li>• Ikastetxeetan bide hezkuntza jardunaldien sustapena eta laguntza.</li> </ul>

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehenetsuen esku-hartze jardura esparruak
2.5. Oinezko eta bizikleta sareen ezaugarriak		<p>ekipamenduak eta Lezama-Legizamoneko poligonoa konektatuz. Herri mailan duen <b>onartze maila altua da eta erabiltzaile kopurua ere altua da.</b></p> <p>Herri osoa zeharkatuz parke eta lorategiak lotzen dituen oinezkoen ibilbide seguru bat osatuz, oinezkoen desplazamendua faboratzen jarraitu beharra dago <b>kaleak peatonalizatuz eta segurtasun neurrien bitartez.</b></p> <p>Bizikletaz ibiltzeko ibilbide gutxi daude udalerrian eta honek ez du bizikletaren erabilera herri barruan faboratzen, ez industri poligonoarekin lotura gisa eta ezta inguruko herriekin Bizkaiko Bizikleta Sarearen bitartez lotura gisa ere. Zentzu honetan, <b>N-634 errepidearen lurperaketa eta Euskotreneko zubi berria</b> dira herrian oinezkoen eta bizikletaz ibiltzeko eta Basaurirekin lotura hobetzeko udalaz gaindikoko ekintza nagusiak dira.</p>	
2.6. Bide sarea			
2.7. Landa bideen sarea			
2.8. Aparkalekua		<b>Etxebarriko gertuko errepide sarea ona da, herriak duen sare propioa ordea eskasa da: hiri-zatira eta Lezama -Legizamoneko Poligonora irisiteko bidera mugatzen da.</b> Etxebarriko Mugikortasun planak neurri batean gauzatu diren <b>trafikoa ordenatu, lasaitu eta bide seinalizazio neurriak ezartzen ditu. N-634 errepidea lurperatzeko proiektua</b> Etxebarriko barne mailako lotura hobetzeko eta azken urteetan okertu den bide segurtasuna hobetzeko gakoa da.	
2.9. Motorizazioa eta ibilgailuen parkea		Udalerrian ia ez dago landa izaerako ibilbiderik eta <b>ez dago homologaturiko ibilbiderik</b> (GR, PR; SL, Done Jakueko ibilbidea, e.a.)	
2.9. Istripuak		OTA sistemaren ezarpenak <b>hiri-guneko aparkalekuaren egoera hobetu du.</b>	
2.10. Salgaiak		<b>Euskadiko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoaren barruan 2010-2014</b> ikastetxeei zuzendutako bide hezkuntzaren inguruko prestakuntza saiok antolatzen dira. Aurrekoaz gain, <b>Eskolako Agenda 21</b> aren proiektuaren baitan 2010-2011 ikasturtean mugikortasunaren gaia jorratu zen.	
2.11. Bide hezkuntza			
<b>3. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA</b>			
3.1. Natura eta paisaia balioak		<p><b>Etxebarriko landaretza</b> baso-landarediaz osatuta dago gehienbat, udalerriko azaleraren ia %40a ordezkatzen duen eta horietatik %55 baso hostotsuei dagokio non amerikar haritza nagusitzen den eta koniferoek %45 ordezkatzen duten; <b>belardi eta laborantza atlantikoak</b> ez dira %10era iristen.</p> <p>Era isolatuan, harizti-baso misto atlantiarra aurkitu daiteke. Bestelako landaredia guztia <b>balio ekologiko gutxi</b> dauka ze oso gizatiartuta dagoen gunean aurkitzen da. Harizti-baso misto ekosistemek dituzten ezaugarriak direla eta Baso Igel-iberiarra bezalako espezieak egon daitezke, EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan interes berezikoa bezala kontsideratuta dago.</p>	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko ingurune naturala eta paisaia ezaugarritzeko ikerketak egin.</li> <li>• Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten gunek eta elementuak <b>babestu eta berreskuratu.</b></li> <li>• Azpiegitura eta hiri-hazkundearen <b>eraginak murriztu.</b></li> </ul>
3.2. Natur sistemen eta paisaiaren			

LURRALDE ALDERDIAK			
Azpi eremuak	B	Alderdi nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jardura esparruak
kontserbazio egoera		<b>Ez dira identifikatzen komunitate mailan interesa duten habitatik.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Natur espazioak babesteko neurriak hartu</li> <li>Erabilera soziala duten natur guneak <b>ordenatu</b>.</li> <li>Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bilatuz, <b>ingurugiroarekin loturiko heziketa eta zabalkunderako ekintzak areagotu</b>.</li> <li><b>Gune naturalen eta erdi-naturalen kudeaketa egokia sustatu</b></li> </ul> <p><b>Udalaz gaindiko eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Obrak eta azpiegituren garapenean, <b>ingurunea babesteko eta kontserbatzeko neurriak ezarri</b>.</li> <li><b>Espezie inbaditzaileak kentzeko neurriak hartu</b>.</li> <li><b>Ibaiertza errekueratu</b>.</li> </ul>
3.3. Jardueren eraginak eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean	☹	<p>Gizakiaren jardura jatorriko paisaian eragin handia izan du, <b>ahalezko landaredia eraldatuz</b>.</p> <p>Flora Aloktonoa inbaditzailea Bizkaian ikerketaren arabera (Bizkaiko Foru Aldundia, 2010), Etxebarrik <b>flora inbaditzaile espezieen inbasio maila altua dauka</b>.</p> <p>UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerriek fauna exotiko inbaditzailea izateko ahalmena dute: amerikar bisoia, amerikar karramarroa, karpa, eguzki arraina, lutxo, zamo txikia eta apoarmatu amerikarra.</p> <p>Nerbioio goiko tramuak <b>baldintza fisiko-kimiko larriak</b> aurkezten ditu, industriaren presentziagatik eta bereziki araztu gabeko hiri-hondakin urengatik; ingurumen kalitateko helburuak ez dira betetzen eta <b>egoeraren edo ahalmen ekologikoaren kalifikazioa urria edo txarra da</b>.</p>	
3.4. Babestutako naturguneak	☹	<p>Hiri eta etxebizitza hazkundera, azpiegitura linealen ugaritzea, izaera inbaditzailea duen kanpoko flora eta faunaren presentzia, basoen ustiapena, lurzoruen kutsadura eta ibaiko isurketak dira Etxebarriko ingurune biotikoa eta paisajistikoa izan ditzakeen arriskurik esanguratsuenak.</p> <p>Etxebarrin ez dago Babes Bereziko Lekurik <b>ezta babes berezia duen udal azalerarik ere</b>. Indarrean dauden Arauek ez dituzte babes figurak jasotzen. <b>Elkarte sarearen eta herritarren parte-hartzea ematen da:</b> ibaiaren garbiketa bertako zuhaitzen landaketa, e.a. ekintzetan.</p>	
3.5. Natur ingurunearen antolamendua eta kudeaketa	☹	<p>Udaletxeak, <b>urbanizazio, parke eta lorategi berrietako diseinuetan</b> bertako espezieak sustatu eta espezie exotiko inbaditzaileak ekiditeko gainbegiratu egiten du.</p> <p><b>Bestelako erakunde publikoekin</b> espezie inbaditzaileak kentzeko proiektuetan lan egin beharra dago.</p>	

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jardura esparruak
<b>4. URA</b>			
4.1. Ur horniketa	☹	Ur hornidura beharrak egoki betetzen dira.	<b>Udal eskumena</b>

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jarduera esparruak
4.2. Edateko ura banatzeko sarea	☹️	Ur hornidura sarea berrikuntza prozesu jarrai baten barruan egon da, <b>fibrozeroa ia kanporatu da, errendimendu indizea altua</b> erregistratu da non <b>kontrolik gabeko ur bolumenak %16</b> izan diren, UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan daturik baxuena izan da eta EAE-ko (2007-2010) II Ingurumen Esparru Programan %25 ur galerak ez edukitzeko konpromisoa da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Uraren erabilera <b>eraginkortasuna</b> sustatzen duten lanabesak garatu</li> <li>• Ur baliabidearen garrantziaren inguruan <b>sentsibilizatu</b> eta baita ur bioaniztasun inguruan ere.</li> </ul>
4.3. Eskaera eta kontsumoa	😊	<b>Uraren kontsumoa</b> 2005 urtetik jaisten doa, 2010 urtean UT21 Nerbioi-Ibaizabal batez bestekoaren azpitik aurkitzen delarik.	
4.4. Saneamendua eta arazketa	😊	Etxebarriko <b>saneamendu estaldura maila ona</b> da, Ur Partzuergoaren arabera 2010 urtean <b>etxebizitzaren %99 daude saneamendu sarera konektatuta</b> . Konektatu gabe egon daitezkeen zenbait baserri aurkitu daitezkeen arren hauen konexioa ez da bideragarria.	
4.5. Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa	☹️	Industri jardueren <b>isuriei</b> dagokionean, Partzuergoaren kontrol maila altua da eta egon daitezkeen gertakari edo arau-hauste puntualez aparte, euri sarean isurketa fekalak adibidez, egoera nahiko ona dela kontsideratzen da.	
4.6. Sentsibilizazioa	😊	Etxebarriko Udalak Eskualdeko Iraunkortasun bulegoaren bitartez 2008 eta 2012 urte bitartean antolatutako sentsibilizazio eta <b>parte-hartze ekintzetan parte-hartu du</b> .	
4.7. Udaren kalitatea	😊	Ur kontsumoaren kalitatea <b>onargarria</b> izaten jarraitzen du eta Errege dekretuak 140/2003 ezarritako irizpideak betetzen ditu.	
<b>5. HONDAKINAK</b>			
5.1. Hiri hondakinen sorrera <sup>1</sup>	☹️	2005 eta 2009 <b>urte bitartean hiri hondakinen sorrera tasa</b> (Kg./bizt/egunean) <b>jaisten joan da</b> , 2009 urtean UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo batz bestearen <b>azpitik kokatuz</b> eta Bizkaiko Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralak ezarritako helburuak beteaz.	<b>Udal eskumena</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hondakinen sortze tasak murriztu</b>, kontsumo jasangarria eta erosketetan praktika egokiak sustatuz.</li> <li>• <b>Gaikako bilketa tasak handitu</b></li> <li>• EAEn ezarritako helburuak lortzeko gaikako bilketa sistemak <b>indartu</b>.</li> <li>• <b>Hondakin organikoen bilketa sailkatua eta konpostajea bultzatu</b>.</li> <li>• <b>Etxebarrin sortutako hondakinen tratamenduan</b></li> </ul>
5.2. Gaikako bilketa	☹️	<b>Gaika jasotako hondakinek ordezkatzeko duten portzentajea</b> (papera eta kartoia, edukiontzia, boluminosoak, ehuna eta olio) <b>2005tik 2010 urte bitartean igo egin da</b> , hala ere, murrizketa txiki bat hauteman zen 2011 urtean. <b>Beraz beharrezkoa da hondakinen sailkapena indartzen jarraitzea</b> .	
5.3. Hiri hondakinen kudeaketa	☹️	<b>Udal hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzuak</b> gaika bildutako hondakinak eta gaika biltzen ez diren hondakinak, industria hondakinak, merkataritza edo asimilagarriak diren hondakin instituzionalak (RICIA) eta boluminosoak barneratzen ditu.	
5.4. Hiri hondakinen tratamendua	☹️		

<sup>1</sup> Hiri hondakinak (RU) = Etxe-hondakinak (RD) + Erakundeetako hondakinak, Merkataritzakoak eta Industriari egokitutakoak (RICIA) 1999/21/CE zuzentaraurekin bat datorren definizioa.

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
5.5. Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		Aurrekoarekin batera, Eskualdeko Iraunkortasun Bulegotik, eskualdeko udalerrien artean, olio, inpresio eta mugikorren hondakinak, pilak eta akumulatzaileen bilketa zerbitzua koordinatzen da. <b>Etxebarrik ez dauka Garbigunerik</b> , gertuena Basaurin kokatzen da. <b>Etxeko hondakinetan frakzio organikoaren bilketa selektiboa ez da ezarri</b> eta ez da hondakin mota honen inguruan inolako ekintzarik aurreikusten ez udal mailan eta ezta eskualde mailan ere. <b>Inausketa eta lorategiko hondakinak</b> elkarte ekologistei ematen zaizkie <b>konpostajea</b> egiteko. <b>Basauriko Garbigunean</b> gremio, merkatarari eta partikularrei zuzendutako gune batean, hondakin multzo ezberdinak sailkatuta utzi daitezke, funtsean hondakin mota hauen berreskuperapena eta birziklapenena egiteko.	<p><b>berreskuratze/balorizazio tasak handitu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kontzientziazio eta sentsibilizazio</b> ekintzak garatu.</li> <li>• Ekoizle txikiek sortutako <b>hondakin arriskutsuen kudeaketa</b> sustatu/hobetu.</li> <li>• Industri enpresetan <b>legalizazio</b> prozesuak sustatu.</li> <li>• Udal jarduerak sortutako hondakinen kudeaketa sistematizatu</li> </ul>
5.6. Sentsibilizazioa		2002 urtean onartu zen eta 2010 urtean aldatu zen <b>Bide garbiketaren inguruko arautegi</b> bat dago, bertan etxeko edo obretan sortutako hiri-hondakinak utzi, bildu eta tratatzerako garaian herritarrek eta udalak dituen betebeharrak agertzen dira. Urtero <b>arautegi fiskal</b> bat argitaratzen da, bertan zaborraren bilketa eta eliminazio tasak jartzen dira. Etxebarriko Udaletik eta Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, 2008 eta 2012 urtea bitartean hondakinen eta hauen kudeaketaren inguruko sentsibilizazio ekintzak garatu dira eta hondakinen kudeaketa eskolako politikan txertatua dago <b>Eskolako Agenda 21 Programaren</b> bitartez.	
5.7. Hondakin industrialak		Lezama-legizamoneko poligonoa kontserbatzeko ardura duen erakundeak <b>industria hondakin inerteak</b> biltzen ditu, dena dela noizbehinka udal kontainerretako bilgarri eta obra-hondakin hondarrak agertzen dira. Hiri <b>hondakin asimilagarrien</b> kudeaketarako, industri poligonoetan kontainerrak ezarri dira. <b>Udalaren kale garbiketa zerbitzua</b> ona dela kontsideratzen da, dena dela zerbitzu osoa mekanizatuz hobetu daitekeela uste da.	
5.9. Eraikuntzako hondakinak			
5.10. Bide garbiketa			
5.11. Udal erakundeetako hondakinak			

## 6. ENERGIA












BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA			
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
6.1. Egitura energetikoa	☹️	Udalerriko <b>egitura energetikoak</b> , EAEko beste hainbat udalerrien antzera, <b>erregai fosilen</b> erabilera ekartzen du eta ondoren berotegi efektua duten gasen isurketa garrantzitsua.	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeetan aurrezte eta eraginkortasun energetikoa sustatu: informazioa eta sentsibilizazioa.</li> <li>• Kalitate energetiko baxua duten eraikinen eta etxebizitzaren berriztapena sustatu.</li> <li>• Proiektu berrien eta erreformen ziurtagiri energetikoa sustatu.</li> <li>• Publikoak diren eraikuntza eta instalakuntzetan energia berriztagarria sortzeko ahalmena zehaztu eta hauen ezarpena planifikatu.</li> <li>• Udalerrian garrantzia duten eraikuntza eta ekipamendu guztietan ikuskaritza energetikoak egin.</li> <li>• Udal flota zabaldu edo aldatzerakoan, ahal denean, ibilgailu hibridoak edo elektrikoak barneratu.</li> <li>• Udal kudeaketa energetikoaren inguruan orientazioa, neurriak eta pizgarriak txertatuko dituen arautegia egin.</li> <li>• Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien inguruko komunikazioa eta sentsibilizazio ekintzak garatu.</li> </ul>
6.2. Energia berriztagarrien ekoizpena	☹️	Energia iturri berriztagarrien presentzia <b>oso eskasa</b> da gaur egun. Udalerriak <b>energia fotovoltaikoa bezalako energia berriztagarriak erabiltzeko ahalmena dauka</b> . Ez dago ahalmenik energia eolikoa aprobetxatzeko. <b>Etxeko kontsumoa gorantz joan da</b> , zerbitzu sektorea, gorako joera baten ondoren, zertxobait jaitsi da 2009 urtea geroztik eta <b>industri sektorearen kontsumoa urte horretatik aurrera asko murriztu da</b> .	
6.3. Tokiko administrazioan energiaren kontsumo eta kudeaketa	☹️	Ikastetxeetan, polikiroldegian eta futbol zelaian eguzki plaka termikoak daude eta ikastetxeetan eta polikiroldegian plaka fotovoltaikoak. Energia ez berriztagarriekiko dagoen menpekotasuna murriztu eta era berean berotegi efektua duten gas isurketen murrizketan laguntzeko <b>alor honetan era publikoan eta pribatuan lan egiten jarraitu behar dela kontsideratzen da</b> .	
6.4. Udal ekipamenduen kontsumoa	☹️	Etxebarririk Eudelek sustaturiko proiektuan parte-hartu du non helburu nagusia <b>eraikin publikoetan energi kontsumoaren aurrezte lortzea izan den</b> , horretarako kontsumoen monitorizazio jarraitua egin da eta kontrol neurriak hartu dira nahiz eta ez diren esperotako emaitzak lortu.	
6.5. Udal argiteriaren kontsumoa	☹️	2011 urtean egindako <b>argiteri publikoaren ikuskaritzaren ondorioz</b> argiteri gehienak aldatu dira. Koadroen hobekuntza, azken belaunaldiko fluxu murriztaileak jartzea eta zenbait argiteri aldatzea zintzilik geratzen da.	
6.6. Udal ibilgailuen kontsumoa	☹️	Kukullagako ikastetxe berriaren eraikuntzan eraginkortasun energetikoko irizpideak jarraitu dira eta <b>A mailako sailkapen energetikoa lortu da</b> .	
6.7. Energia kudeatzeko araudia	☹️	Udaletxeko flotak <b>ez dauka</b> ibilgailu hibrido edo elektrikorik. Ez dago kudeaketa energetikoaren inguruko inolako arautegirik.	
6.8. Sentsibilizazioa	☹️	Energiarekin loturiko sentsibilizazio ekintzak Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoaren bitartez garatzen dira.	
<b>7. INGURUMEN KALITATEA</b>			
7.1. Atmosferara isuriak	☹️	<b>Garraioa eta udalerrian eta inguruetan kokatzen diren industri jarduerak</b> dira <b>Etxebarriko kontaminazio isuri nagusiak</b> . <b>Airearen kalitatea onargarria da, hala ere, ez dago hau ziurtatu dezaketen duela gutxi egindako neurketarik, ez baitago Eusko Jaurlaritzako Airearen Kalitatea kontrolatzeko estaziorik eta ez direlako ere estazio mugikorrekine neurketarik egin.</b>	<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Airearen kalitatearen inguruko <b>aldizkako neurketak</b> egin eta emaitzak komunikatu.</li> <li>• Udalerriko <b>zarata mapa</b> egin.</li> <li>• <b>Komunikazio azpiegituretako eragin akustikoko</b></li> </ul>
7.2. Airearen kalitatea	😊		

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA				
Azpiegitura	B	Alderdi nagusiak	Lehenasunezko esku-hartze jarduera esparruak	
7.3. Kalitate akustikoa	☹️	Industriatik eratorritako isurketak murriztu egin dira baina <b>ez da ezagutzen potentzialki atmosfera kutsatzen duten enpresen egoera</b> zein den, horregatik <b>Nerbioi Ibaizabal eskualdea mailan isurketa industrialen</b> identifikazioa, erregistroa, ikuskaritza eta kontrola egiteko <b>Fokuen inbentario bat egiten hasi da.</b>	<p><b>ikerketak sustatu</b> (Metroa, Tren Geltokia) eta bere kasuan neurri zuzentzaileak garatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruetan kokatzen diren enpresetan <b>ingurumen kudeaketa egokia</b> bultzatu.</li> <li><b>Prestakuntza eta sentsibilizazio</b> ekintzak garatu.</li> </ul>	
7.4. Kalitate akustikoaren kudeaketa	☹️	<b>Ez dago zarata maparik</b> eta N-634, metroa eta Tren Geltokiko eraginak zein diren jakin nahi da. <b>Aisialdi eta merkataritza ekintzak</b> , biztanleria molestatu dezaketen zarata iturriak dira eta noizbehinka hauen inguruko kexa edo salaketak egon dira. <b>Metroa dela eta auzokideen kexak erregistratu dira.</b> Industria jardueren industria poligonoetan sortutako zaratek <b>ez dute ia eraginik biztanlerian</b> , hala ere, kexak egon dira eta horregatik zenbait neurketa egin eta neurriak hartu behar izan dira.		
7.5. Lurzoruaren kalitatea	☹️	<b>Ostalaritzako ordenantza</b> bat dago, <b>Txosnak instalatzeko arautegia dago</b> eta <b>Terraza eta Mahaitxoan ordenantza</b> bat dago, arautegi hauen bitartez jarduera hauek direla eta sortzen diren zaratez babesteko neurriak jorratzen dira. Udalak <b>kexak tramitatzen ditu</b> eta dagokion ikuskaritzak egiten ditu.  165/2008 dekretua, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruaren inbentarioan, Etxebarrin <b>potentzialki kutsatuta egon daitezkeen 24 enplazamentu identifikatzen dira.</b>		
7.6. Lurzoruaren kalitatearen kudeaketa	😊	Jarduera lizentziaren haserako tramitean potentzialki kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan <b>aurretiko kontsulta</b> prozedurarekin betetzen da eta <b>lurzoruaren kalitate aitormenekin</b> ere betetzen da legeak eskatutako kasuetan.		
7.7. Komunikazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa	☹️	Udalerrri mailan ez da <b>lurzoruen berreskurapena, airearen kalitatea eta zaratei buruzko inongo komunikazio eta prebentzio kanpainarik egiten.</b>		
<b>8. ARRISKUAREN ETA JARDUERA EKONOMIKOEN KUDEAKETA</b>				
8.1. Arrisku naturalak eta teknologikoak	☹️	<b>Nerbioiko bi ibaiertzetan uholde arriskua</b> identifikatzen da. <b>Sute arriskua</b> udalerriko ipar-mendebaldeko baso landaretzan handia dela kontsideratzen da. Udalerriko parterik handiengan akuiferoek kutsadurarekiko duten zahurgarritasuna oso baxua edo hautemaiezina da.		<p><b>Udal eskumena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Eguneratutako Udalerriko Larrialdietarako Plan bat izatea</li> <li>Behar duten eraikin eta lokal publiko guztietan auto-babeserako planak izatea.</li> </ul>
